



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

EUSKARA, geure ZIRRARA



SARIA:
DONAMARIAKO
BENTAn
bi lagunentzako
otordua

2020KO IRAILA

169. ALEA

IZENAK IZAN

EUSKARA POROETATIK

Mentxu Peña Lizarazuk bizi guzia eman du euskararen alde lan egiten. Bortzirietako Euskaltegian urte andana eman ondotik, erretretan dago gaur egun, baina inola ere ez geldirik. Horregatik eta aunitz maite dugulako, elkarrizketa egin diogu.

Zerí buruz? Bada, euskarari buruz!



1. Noiz hasi zinen euskara irakasten?

Nire lehendabiziko klaseak, gezurra badirudi ere, 15 urte nituelarik eman nituen. Nik noski ez nekien irakasten, euskalduna nintzen bertzerik ez. Eta garai hartan lagun batzuk irakasteko eskatu, eta nik, zer eta nola ez nekiela, "Euskara hire laguna" liburua, Patxi Altunak idatzia, aurkitu eta horrela hasi nintzen, seigarren ikasgairaino ailegatu ginen, ez bainekien nola irakatsi. Izan ere ez bainintzen alfabetatua. Gero, auzoko hurrekin eta haien gurasoekin ere aritu nintzen, ahal nuen bezala, gero JALGI HADI liburuekin, bitarte horretan guztian alfabetatu nintzen.

2. Urte anitz eman dituzu euskara-irakasle. Hain denbora luzez horretan emateko, zer du lan horrek?

Alfabetatu ondoren eta EGA eskuratu nuenean, Irungo AEKn hasi nintzen lanean. Hamaika urtez aritu nintzen bertan. Gero, Arantzara bizitzera etorri eta Bortzirietako IKAn hartu ninduten. Bizitza guztia eman dut euskara irakasten, ni horretan izan naiz zoriontsu. Nahiz eta garai zailak bizi izan ditugun, ikasleekiko harremana, ikasleen gogoa ikasteko, deus ez jakitetik euskaldun oso izatea lortu duten ikasleekin aritzea, horrek guztiak gogo betetzen ninduen erabat.

3. Zer eman dizu euskarak? Eta zuk zer eman diozu?

Euskarak ni egin nau. Nire izaera euskaraz eta hein batean euskarak egina da. Euskaldun sortu nintzen, haur nintzela euskalduna nintzen. Inguru erdaldunean euskalduna nintzela erratea edo haiek sumatzea nire nerabetasunean erraza izan ez bazen ere, zortea izan nuen berehala burua nire lekuan jartzeko zortea izan nuelako. Zortea lagun batzuek euskara irakasteko galde egin zidatelako, bestela auskalot!

Nik uste dut ahal nuen bezainbertze eman diodala. Orain ere horretan darrait, euskara batzordea dela, Solaslaguna dela eta ahal dudan guztietan idazten.



4. Nola ikusten duzu euskararen egoera eskualdean? Anitz aldatu al da irakasten hasi zinenetik?

Bortzirietan ni euskaltegian hasi nintzenean, gogo handia zegoela sumatu nuen. Bai, ez zekitenen artean, eta batez ere EGA eta ALFABETATZEko nahia eta beharra ikusten zen. Orduan, bai herritar arruntak, zein funtzionarioak beharra ikusten zuen. Gurasoek haurrek eskolan euskaraz ikasten zutelako, hedabideak ere euskaraz ikusi, entzun eta ulertu nahi zutelako eta funtzionarioek, berriz, beraien lanetan euskaraz hitz egiteaz gain agiriak ere lehen ez bezala euskaraz behar zutelako izan. Garai hori oso betegarria izan zela uste dut. Orain, ordea, ematen du dena egina dela, denak euskaldunak garela. Baina, hutsune anitz direla uste dut, erlaxatze garaia dirudi. Gure esku ez balego bezala, ez zaio hainbertzeko garrantzia ematen helduen artean, nire ustez. Aise egiten dugu hizkuntza batetik bestera eta bestalde, helduak galdu du haur eta gazteei hizketan ari direlarik eta zuzena ez bada, zuzentzeko ohitura. Gure gurasoek zuzendu egiten gintuzten ongi hitz egiten ez bagenuen. Orain, ordea, gurasoak uste du horrela solastatzen bada, hori dela zuzena.

5. Euskalgintzari dagokionez nola aurreikusten dituzu heldu diren urteak?

Egia erran ez dut erraza ikusten. Baina inoiz ez da erraza izan. Ni gazte nintzelarik bezala, gaur egun ere Kanpotik etorritako jendea badugu eta horiek ere ikasi nahi dutela uste dut. Baina gure jarrerekin ematen du ez dugula euskalduna izaterik nahi. Ematen du arrotza delako hobe dela harekin gaztelaniaz aritzea. Ez bada! kalte egiten diogu bai berari eta baita geure buruari ere. Gu bere lekuan jarri. Eman dezagun joan garela Errusiara eta hangoek badakitela euskaraz, eta euskaraz egiten digutela. Bada, ez ligukete batere mesede eginen; izan ere, bertako sentitzeko errusieraz ikasi beharko genuke. Guk nahi al dugu euskaraz ez dakien jendeak gurekin euskaraz egitea eta komunikatzea? Edo ez!

Lana bada, eta ba al da lan hoberik ez dakienari dakiguna erakustea eta bera guregandik gertuago sentiaraztea, geure hizkuntza ikasita, gure kodeak ikasita baino?

6. Zer erranen zenioke euskaraz ez dakienari ikastera animatzeko?

Gure hizkuntza dela. Gure hizkuntza ikasita gu eta gure izaera ulertuko duela. Mundu berri bat irekiko zaiola.

7. Eta euskaraz dakienari, zer aholku emanen zenioke euskaraz bizitzeko?

Euskaldun berria baldin bada, ez lotsatzeko, guk baino meritu handiagoa duela eta euskaraz eginez gero, gertuago aurkituko gaituela. Ez dugula bi metroko distantzia sumatuko. Eta euskalduna bada, zer erranen diot bada? Toki guztietan agertzeko den bezalakoa. Euskalduna naiz eta harro nago! Izan zen lema aspaldian! Bai ba! harro eta kontent kultura horren jabe izateagatik eta ez ahaztu badugula ardura ere. Ze ardura? Bada dakiguna eman eta zabaltzea guri dagokigulako.

8. Lortuko al dugu egunen batean Euskal Herri euskalduna?

Ez naiz igarle. Baina, bai lehen eta orain, gure esku dagoela uste dut!





AHOLKUAK

Euskaraz bizitzeko aholku politak eman dizkigu Mentxuk elkarrizketan. Aholku edo gomendio horiek Etxetik Plazara egitasmora ekarri eta bertze batzuk gehituko dizkiogu gure hizkuntza ikasi nahi dutenei edo horretan dabiltzanei espresuki zuzenduta. Beraz, lanketa honetan, aholkuak ematen ikasiko dugu. Hona hemen adibide bakar batzuk:

- Euskara ikasi nahi baduzu, **komeni zaizu** euskaltegian izena ematea.
- **Komenigarria da** irratia euskaraz aditzea.
- **Ona da** Etxetik Plazara aldizkaria irakurtzea eta bertako ariketak egitea.
- **Hobe duzu**, gauza sinpleei buruz bada ere, poliki-poliki solasean hastea.
- Ogia erostera joaten zarelarik, euskaraz eskatzeko **aholkatzen** dizut.
- Euskal musika entzuteko **gomendatzen** dizut.
- **Eman** izena euskaltegian!

ZURE TXANDA

Beltzez nabarmendu ditugun hitz edo egitura horien bidez ematen ahal dituzu gomendio edo aholkuak. Garbi gelditu al zaizu? Orain, zure txanda! Hurrengo esaldiak ongi garatu beharko dituzu. Ongi erreparatu adibideari zer egin behar

Adibidez: Telebista euskaraz ikusi / nik zuri gomendatu
Telebista euskaraz ikusteko gomendatzen dizut.

1. Ona izan / euskaraz pentsatu

.....

2. Komenigarria izan / eguneroko tiki bat idatzi

.....

3. Ikasitakoaren eskema edo laburpenak egin / nik zuri aholkatu

.....

4. Komeni izan / hitz berriekin hiztegi bat egin

.....

5. Hobe izan / euskara egoera berrietan erabili

.....

6. Zure akatsak identifikatu / horiek zuzendu / nik zure gomendatu

.....





BITXILOREAK

GAITZ OROREN GAINETIK, EUSKARA

Mentxuri egindako elkarrizketan harribitxi aunitz topatu ditugu. Testuari hitz batzuk kendu dizkiogu, eta, behean, bertze bi ____1____ paratu ditugu. Zure lana da egokiena aukeratzea.

ERNE, SARIRAKO!



Mentxuk bezala, hainbat eta hainbat irakaslek jardun dute Malerreka eta Bortzirietako euskaltegietan. Guztiek dakite (edo dakigu) helduen euskara-irakaskuntzan aritzea zer nolako jarduera den. Hasierako urte horietan, euskara irakastea berezia izaten zen, euskalgintzako beste zenbait arlotan bezalaxe: militantziaz burutu beharrekoa, urteetan zehar jasandako eraso eta enbatei aurre egiteko konpromiso tinkoa erakutsi beharrekoa, diru murrizketekin aritzea... Horrela aritu gara Mendialdeko euskaltegietan 40 urte hauetan, baina beti-beti euskara lau haizeetara zabaltzen. Hamaika ____2____ egoitzatan aritu gara; hamaika metodo ezberdin erabili dugu; hamaika ____3____ teknologiko izan dugu.

Gau eskolak ziren hasmentako ____4____, baina, poliki-poliki, bertze erritmo eta ordutegietara egokituz joan gara. Hasieran, gure ikasgeletan arbela berde eta klarion zuriak, arkatza eta boligrafoa; gero, kaseta zaharrak; ondoren, DVDak; eta, ____5____ urteetan, USBak, ordenagailu-pantailak, telebistak, ordenagailu eramangarriak, tabletak, telefono mugikorrak... Edozein lan-tresna izanda ere, lau hamarkada hauetan, 4.000 ikasle guregana hurbildu dira euskara ikastea, hobetzea, hizkuntza eskakizun zehatzak lortzea, tituluak prestatzea... helburu dutela. Munduko toki ezberdinetatik etorritako ikasleak izan ditugu. Udan ere, gure barnetegietara milaka ikasle etorri dira. Garai bateko alfabetatu gabeko ____6____, orain, seme-alabak igortzen dituzte C1 titulua prestatzeko. Zubi-lana eginez, kanpotik etorri ____7____ ere euskararekiko hurbilketa errazten saiatu gara, tarteka lortu ez dugun arren. 4.000 ikasle horiek dira gure lanaren emaitza, baita etorkizunari begiratzeko itxaropena ere.

IKA koordinakundeak aurten 31 urte bete ditu. Hiru hamarkada hauetan, Ikas eta Ari leloa jarraituz (ikas eta ari edo praktikatzu) kantuak, aditzak, esaldi motak, nor, nori, nork... landu ditugu, baina gehiago ere erakutsi eta landu dugu. Gure ikasgairik hoberena izan da euskaraz bizitzeko ahaleginean gure aletxoak ipini dugula ____8____.

Aurten, mundua hankaz gora jarri zaigu, eta birus horrek hainbat jarduera eta aritzeko era eraldatu dizkigu. Euskara ere ez da salbu egon. Baina euskarak historikoki hainbat "birusi" aurre egiteko ahalmena izan du, eta izanen du.

Iraila ailegatu da, eta gure euskaltegiak prest ditugu "egoera berri-ezberdin-arraroan" murgiltzeko. Ikasgeletan ezarritako distantziak ____9____ egonen dira, garbiketa, protokoloak jarraitzeko modua izanda... Den-dena atondu dugu etorritako ikasleak ____10____ gure ikasgeletara lasaitasunez etortzeko. Euskararen berotasuna eta magia musukoarekin edo gabe sentitzeko prest gaude. Euskara erakusten segi nahi dugu, euskararen transmisioa ez dugu eten nahi. Badakigu euskararen "birusaren" kilikak zabaltzeko eta euskararen magiaz kutsatzeko gure jarduera ezinbertzekoa dela. Euskaraz "Ikasi eta Ari" euskararen normalizaziorako debaldeko txerto bilakatu nahi dugu. Zatoz gure euskaltegietara!

1. a) aukerakin
b) aukerekin
c) aukerarekin

2. a) egoitzetan
b) egoitzatan
c) egoitzan

3. a) euskarri
b) heuskarri
c) euzkarri

4. a) urteetan
b) urtean
c) urtetan

5. a) ondarreko
b) hondarreko
c) hondarko

6. a) gurasoek
b) gurasoak
c) gurasok

7. a) direnari
b) direneri
c) direnei

8. a) jakiteko
b) jakitera
c) jakitea

9. a) bermatutak
b) bermatuta
c) bermatua

10. a) aurrez-aurre
b) aurrez aurre
c) aurre-aurre



BOTA BERTSOA!!

Iker Gorosterrazu bertsolari Iturendarrari bertso batzuk botatzeko eskatu diogu, eta solas polit hauek oparitu dizkigu. Honako gai hauek landu ditu: euskaltegiak, bertso-eskolak eta Euskaraldia. Baina bertsoei erreparatzen badiezu, akabera batzuk falta direla ikusiko duzu. Lasai! Bukaerak hemen behegian harrapatuko dituzu. Orain, zure txanda: osatu bertsoak!



EUSKALTEGIAK

Gure hizkuntza ikasiz egin
nahi baldin baduzu jolas
kurtso berri bat ailegatuta
gogoz hasiera ____1____
euskaltegian egonen gara
gure izatea ____2____
ongi pasatu zein ikasteko
aukera ona da ____3____
lagunartean mundu berri bat
irudikatu euskaraz.

BERTSO ESKOLA

Doinua kantu hitza errima
ideia elkarrizketa
giro onean goxotasunez
otorduren bat ____4____
astero legez bete ohi dugu
irriz mahaiaren ____5____
zeinen ederki sentitzen garen
lotsa etxean ____6____
bertso eskolan izena eman
bertsoa zain duzu eta.

EUSKARALDIA

Nahiz euskaradun jendea azken
urte hauetan ugaltu
dakien orok erabiltzeak
zentsurikan ez du ____7____
orain egiten ez dugun horrek
geroko balio al ____8____
ahobiziak belarriprestak
arigunetan ____9____
Euskaraldia urteko egun
guztietara zabaltu.

- a) beraz
- b) buelta
- c) ardatz
- d) du
- e) ernaldu
- f) bagoaz
- g) galdu
- h) gordeta
- i) tarteka



Doinua: Itsasoari begira (Benito Lertxundi)

ERANTZUNAK



LAN eta LAN (4. or.):

1- Ona da euskaraz pentsatzea; 2- Komenigarria da eguneroko tiki bat idaztea; 3- Ikasitakoaren eskema edo laburpenak egiteko aholkatzen dizut; 4- Komeni zaizu/da hitz berriei hiztegi bat egitea; 5- Hobe duzu euskara egoera berrietan erabiltzea; 6- Zure akatsak identifikatu/identifikatzeko eta horiek zuzentzeko gomendatzen dizut.

BOTA BERTSOA (6. or.):

1- f; 2- c; 3- a; 4- i; 5- b; 6- h; 7- g; 8- d; 9- e

168. aleko sariaketa erantzunak – BITXILOREAK (4. or.):

1- D; 2- F; 3- A; 4- G; 5- I; 6- B; 7- L; 8- K; 9- E; 10- C; 11- J; 12- H

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

SARIA:

**DONAMARIAKO BENTAn
bi lagunentzako otordua**

168. aleko irabazlea:

**Jesus Ambustegi Gaston
Elizondokoa**

ETXETIK PLAZARA liburua, DEBALDE!!

**Eska ezazu,
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko
IKA euskaltegietan**



OHARRA: erantzunak urriaren 2a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. OR.):

- | | | |
|-----------|-----------|------------|
| 1 - _____ | 5 - _____ | 8 - _____ |
| 2 - _____ | 6 - _____ | 9 - _____ |
| 3 - _____ | 7 - _____ | 10 - _____ |
| 4 - _____ | | |

EP 169 (2020/09)



ika

euskara errazago egiten



EUSKARAREN KILIKA!!



alaita eta jostaria
alegre y divertido

freskoa eta naturala
fresco y natural

bixia eta osatua
estimulante y completo

klasikoa eta berritzailea
clásico e innovador

**eus
kara
ren
kilika**

ikas eta ari / aprende euskera

ikauskaltegiak.eus

Matriculika

euskara
errazago
egiten

ika

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Marrazkiak:

Joseba Larratxe

Diseinua eta maketazioa:

**Raul Garcia Etxeberria
Mathilde Brugiére-Garde**

Laguntzaileak:

**Nafarroako Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**

Zatoz EUSKARAREN kilika sentitzera!!

Zeure herrian, urritik ekainera, astean 4 edo 6 ordu
MAILA GUZTIAK A1etik C1-EGARA, baita ON LINE ere

%100 diruz lagundua!!

MATRIKULA ZAITEZ: irailaren 30a baino lehen!!

IKAbortziriak, 948 637 796, bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

IKAmalerreka, 948 451 555, malerreka@ikaeuskaltegiak.eus



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behea, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

